

«Epaitzeko irizpideak eta epaileok beti bertsolarien atzetik goaz»

Bertsoa zenbaki-tan kabiaraztea ez da samurra. Bertsoa epaitzea ez da erraza, baina txapelketak horixe eskatzen du, puntuak banatzea eta puntu gehien onenari ematea. Martin Aramendik ondo ezagutzen du prozesua, kasik 25 urte daramatza-eta epailetzaren inguruan. Aurten epaileen arduradun lanetan dabil.

Nolakoa da epaileentzat txapelketa sasoia?

Garai bizia. Foku nagusia bertsolariengan jarrita dago, baina txapelketa garaian emaitza ere garrantzitsua da eta hori epaileok ematen dugu. Txapelketan, gainera, entzule bakoitza da epailea eta zorrotza, gainera. Saio ostean epaia denen ahotan egoten da. Gutxi aipatzen bada, seinale ona. Tentsio handiko momentuak izaten dira, baina garai polita da.

Kasik 25 urte daramatzazu epailetzaren inguruan. Nola garatu da?

Aldaketa nagusia irizpideetan izan dela esango nuke. Gu hasi ginenean oso adierazpide sinpleak ziren, baina balio zuten orduko bertsolaritza epaitzeko. Esan behar da irizpideak eta epaileok beti bertsolarien atzetik goazela. Bertsolariek horretan ere koska kentzen digute. Orduko irizpideak oso sinpleak ziren eta mugarriz izan zen Joxerra Gartziairen tesia –“Gaur egungo bertsolarien baliabide poetiko-erretorikoak. 1999”–. 2001eko txapelketarako tesi horretan

oinarritutako irizpideak pres-tatu zituen Bertsozale Elkarte-ak. Harrezkero ukitu batzuk besterik ez zaizkie egin. Tesi horretan bertsoa komunikazio ekintzat hartzen da eta horren inguruan daude zehaztu-ta irizpide guztiak.

Bertsoa komunikazio ekintza da. Hori da abiapuntua.

Bai, hori da oinarria, eta epaileok bertsoa entzuten dugunean, hori da baloratzen dugun lehen gauza; nola gauzatu den komunikazio ekintza hori, eten-ik egon ote den... Gero, betiko irizpideak daude: neurria, erri-ma, gaiarekiko koherentzia, zuzentasuna... Beti hartzen da kontuan bertsoa ahozko ko-munikazioa dela eta ahozko hizkeraren ezaugarriak izan behar dituela: baliabide poeti-ko erretorikoak, doinua, kanta-era... dena hartzen da kontuan. Hori dena zaku batean sartu, epaile bakoitzaren galbahetik pasatu eta zenbaki bihurtzen dugu bertso bakoitza.

Zaila.

Bai, baina jardutearen pode-rioz eta ariketa hori egitearen poderioz, ohitu egiten zara. Ni ez naiz ari epaile txapelketa honetan, baina epaile txipean jarriz gero, gai naiz bertso bat entzun eta zenbaki bat jartze-ko bertso horri.

Bertsolaritza euskararen gai-nean josten da. Azken urteotan majo aldatu da euskara.

Euskara mailak behera egin du kalean, ezta? Kontuan izan be-har da txapelketa nagusian da-biltzan bertsolari guztiek eus-kara maila oso ona dutela. Beste gauza bat da bertsotan eta bat-batean euskara maila hori islatzeko gai izatea. Ber-tsoa bat-bateko ekintza da eta horrek baldintzatu egiten du.

Baina niretzat, eta epaile gehienentzat seguruen, larria-go da euskararen zuzentasu-nari loturiko akats bat poto bat baino. Poto bat ondo sartu-ta badago, komunikazio ekin-tzari kalte egiten ez badio... ez da larria. Egia da zigortu egi-ten dela eta nahikoa da epaile bakoitzak puntu bat kentzea azken emaitzan dezente su-matzeko. Baina euskararen al-detik egiten diren akats horiek krakatekoa eragiten dute eta komunikazio ekintzari eragi-ten diote, eten egiten dute. Ge-ro epaile bakoitza desberdina da eta bakoitzak bere sentsibi-litate maila dauka akats ho-rien aurrean.

Kalean bezala oholtzan, gero eta ohikoagoak dira beste hizkuntzetatik ekarritakoak.

Bai, hori gero eta gehiago ikus-ten da. Uste dut alderdi hori gehiago zaindu beharko genu-keela, bai guk, bai bertsolariek. 80ko eta 90eko hamarkadetan forma gehiago zaintzen zuten bertsolariek, oro har, eta ga-rrantzia handia ematen zio-ten. Gaur egun edukiak ga-rrantzia handiagoko dauka eta horrek eragina dauka erabil-tzen den hizkeran, erriman... Bertsolari batzuk badira erri-ma estua erabiltzen dutenak, baina azken urteotan joera da errima hori zabaltzera jotzea. Hori dator edukiari garrantzia handia ematen zaiolako.

Bertsolariari eskatzen zaio gai guztiei buruzko iritzi jan-tzia eta originala izatea.

Eta bertso guztietan harritzea, eta hori ezinezkoa da. Bat ona nahi dugu eta hurrengoa ho-bea, eta askotan ez gara kontu-ratzen hori oso zaila dela.

Epaile taldea askotarikoa da, anitza, publikoa adinakoa.

MARTIN ARAMENDI ARANA

BERTSO EPAILEA

Bertsoa epaitzea ez da erraza. Baina txapelketa izatekotan, norbaitek banatu behar ditu puntuak, ahalik eta justuen. Horretan aritzen dira bertso epaileak. Prestakuntza sakona eta jarraitua dago epaile bakoitzaren atzean.



Jon URBE | FOKU

Garrantzitsua da aniztasun hori. Epaile taldean jende asko gaude, lanbide askotarikoa, adin desberdinetakoa... aniztasun hori badago. Gure prestakuntza saioetan atzematen da hori; ez daukagu ibilbide bera, formakuntza bera, zaletasun berak...

Baldintza jakinik ba al da epailea izateko?

Bertsozalea izatea, noski. Orain epaile gabiltzanok ikastaro bat egin dugu eta trebatze saio ugari. Finean, saio horietan erakutsi behar duzu gai zarelako bertsoa puntuatzeko eta puntuazio hori arrazoitzeko.

Trebakuntza saioak aipatu dituzu. Aldaketa gertatu da hor, azken urteotan epaileak etengabeko formakuntzan ari zarete eta.

Bai, hori da. 2017an egin genuen pausoa. Konturatu ginen

«Bertsoa komunikazio ekintza da. Epaileok, bertsoa entzuten dugunean, hori da baloratzen dugun lehen gauza: nola gauzatu den komunikazio ekintza hori. Gero datoz gainontzeko irizpideak»



inertzia funtzionatzen genuela. Gipuzkoako txapelketa etortzen zen, eta Gipuzkoako taldea hasten zen lanean; Euskal Herriko Txapelketa etortzen zen, eta Euskal Herriko taldea hasten zen. Eta ikusten genuen formakuntza iraunkorra behar genuela. Talde bat osatu eta Moodle plataforma digital bat sortu genuen norberak etxetik lan egiteko. Epaileek etxean bakarka lan egitea ere oso garrantzitsua da. Gero, saio presentzialak egiten ditugu, baita saio tematikoak ere; umorea, generoa... hainbat gairen inguruko ikastaro txiki bat jasotzen dugu eta gero ikuspuntu horretatik bertsoak entzun eta eztabaidatu. Trebatze saio horiek oso interesgarriak dira.

Bertsolari bati baino gehiagori entzun izan diot txapelketak duen onena aldez aurreko prestakuntza dela eta epaileen

kasuan ere nik, behintzat, hori nabarmenduko nuke. Prestakuntza saio horietan ikusten dugu besteek zeri erreparatu dioten, nola argudiatu duten... Ikaskuntza garrantzitsua eta polita da agian guri alde egin diguten hainbat detaile beste kideen ahotan entzutea.

Hainbat gairen inguruko ikastaroak aipatu dituzu. Badiara politikoki zuzenaren marra gero eta zurrunagoa ote den esaten dutenak.

Bai, eztabaida hori hor dago. Berez politikoki zuzenaren marra ez dago irizpideetan jasota; hori ez dago idatzita. Baina nik uste dut denok daukagula presente eta behin hori barneratzen dugunean, zaila dela hori gabe epaitzea. Kasuak eta kasuak daude, epaile batzuek besteek baino azal finagoa daukate... baina ez da helburua denok berdinean

tzea. Denok ez dugu berdinean epaitzen, denok ez dugu bertsoa berdinean bizi eta desberdintasun horiek epaian islatuta egotea normala da eta horrela izan behar du, gainera.

Aurten epaileen prestakuntza saioetan bertsolariek ere parte hartu dute.

Saio bat egin genuen bi bertsolarirekin: Unai Iturriaga eta Eli Pagola. Askotan aipatu izan dugu akaso batzuetan bertsolariak esan nahi duen hori ez dugula harrapatzen edo ihes egiten digula. Interesgarria iruditu zitzaigun bi bertsolari ekarri, gaiak bertan jarri, zuzenean bertsotan aritu eta zuzenean epaitzea. Eta ondoren, beti egiten dugun ariketa: epaia argudiatu eta eztabaidatu. Eta bertsolarien iritzia ere entzun genuen, epaia haiek nola bizi zuten ikusteko. Oso oso interesgarria izan zen,

emaitza ederra eman zuen ari-
ketak eta errepikatzeko modu-
koa izan da, inongo zalantza-
rik gabe.


**Txapelketak iraun bitartean
epaileak elkartzen dira pun-
tuazioak errepasatzeko?**

Ez, epaitzen ari direnak ez, bai-
na gu arduradunok, bai. Pun-
tuazioak begiratu eta gauza
zenbait markatzen ditugu;
zerbait berezia gertatu bada,
gaiak bertsoaldiak baldintzatu
baditu, tarte handia egon bada
epaile baten puntuaziotik bes-
te batenera... Lau puntuko al-
dea badago, adibidez, markatu
egiten dugu. Eta markatzen di-
tugun gauza horiek txapelketa
ondorengo gure trebatze saio-
etan aztertu egiten ditugu.

Nabarmendu nahi nuke ber-
tsolariek bat-batean jarduten
dutela eta guk ere, epaileok,
bat-batean jarduten dugula.
Aipatu dugun irizpide zerren-
da horren galbahetik pasatu
eta unean bertan bihurtu be-
har dugu bertsoa puntu.
Agian, zailena hori da, bat-ba-
tean entzun, puntuatu eta hu-
rringo bertsora pasatzea. Beti
ez da erraza; gerta daiteke ber-
tso baten puntuazioarekin
buelbaka geratzea. Baina ko-
meni da puntuatu, ahaztu eta
hurrengora pasatzea. Kontzen-
trazio mailari eustea eta kon-
tzentrazio maila horrekin
puntuatzea ondoren datozen
bertso guztiak.

**Epaile lana eskertua baino
gehiago da egurtua. Eta, hala
ere, ez da epailerik falta, ezta?**

Egia esan, garai eskasagoak
izan ditugu, baina azken ha-
mar urteotan Gipuzkoan eta
Bizkaian talde sendoa dago.
Bai, badu zerbait epailetzak.
Behin hor sartzen denak eta
gustura dabilenak eutsi egiten
dio. Eta ez da diruagatik: gaso-



Jon URBE | FOKU

lina ordaintzeko ematen du
justu. Eta saio bat askoz gehia-
go gozatzen duzu entzule be-
zala epaile bezala baino. Baina
bitxia da: jendea lotu egiten
da epailetzara.

Gozatu egiten da epaitzen?

Bai, gozatzen da. Nahiz eta se-
kulako tentsioa eta ardura
izan, gozatzeko tarte izaten
da. Gozatzen da, batez ere,
saioa ona doanean eta bertso-
lari bat edo bi nabarmen goi-
tik ari direnean. Kasu horietan

epaia errazagoa da; jende guz-
tiak buruan dituen bi horiek
agertuko dira puntuazioan
goiko partean eta ez dago ara-
zorik. Okerragoa da saioa lau-
laua izaten denean eta nor gai-
lendu den ikusten ez
denean.

**Epaile talde handia dago eta
txapelketa nagusirako ba-
tzuk aukeratu behar dira. Ho-
ri ere ez da samurra izango.**

Ez, epaileen ardura dugu non-
tzat lan okerre hori da. Epai-

le taldean, guztira, 40 bat epai-
le izaten dira; horietatik, 30 in-
guru prest-prest txapelketa
nagusian aritzeko. Horietatik
21 aukeratu behar izan ditugu.
Eta Mikel Beaumont eta biok
ordezkoak gara.

Hemen ere ikusten da gara-
pena. Gogoan dut 1997 eta
2001eko txapelketetan zazpi
epaile aritzen zirela txapelketa
osoan. Eta gizonezkoak ziren
nagusi. Geroztik hasi ginen
epaile taldea aldatzen fasetik
fasera. Batetik, gogorra da as-
teburuero epaitzen aritzea eta,
bestetik, epaile taldea handitu
ahala jende gehiagori aukera
ematea egoki ikusi zen.

Hala ere, nahiz eta trebatze
saioetan parte hartu eta gaita-
suna eta gogoia izan, epaile as-
kok kanpoan geratu behar
izan du. Hori da gogorre, au-
keraketa hori egitea. Lurralde-
tasuna, generoa, adina... har-
tzen ditugu kontuan
aukeraketa hori egiteko.

Aurten, lehen fasean lau gi-
zonezko eta hiru emakumezko
ari dira epaitzen. Eta bigarren
fasetik aurrera, emakume
gehiago izango dira gizonak
baino. Finaleko taldean ere
emakume gehiago izango dira
epaile taldean.

Ezustekoak ere izango dira.

Bai, gertatzen dira. Saio baten
erdian komunerako larrialdi
bat izatea epaileren batek,
saioa justu-justuan iristea...
Lehengoan aipatzen aritu gi-
nen lau epaile auto berean
etorri zirela saioa eta istripu-
ren bat edo gertatuz gero, ia
nola konponduko ote ginen.
Tira, zerbait pentsatuko ge-
nuen; ordezkoak deitu eta,
bestela, epaile gutxiagorekin
aritu eta formula matematiko-
ren bat baliatu azken emaitza
parekatzeko... Gertatzen dira
ezustekoak, baina ez askotan.